54.
zenbakia
2021eko ekaina
debaldeko alea

kotarro

Garean-Jarduerak

KANTUZ TXIKI
Ekainak 26
12:00etan Ikastola eta Musika eskola arteko pasabidean

"ETXEAN" ANTZEZLANA
Uztailak 8
19:30ean Los Llanos Kulturaguneko lorategietan
Potx eta Lotx pailazoekin

KONKISEKO PROBAK
Uztailak 17
Goizean Mugiturekin, Los Llanos Kulturaguneko lorategietan

TOR MAGOA
Uztailak 28
19:30ean, Los Llanos Kulturaguneko lorategietan

Udako MUSIKALDIA
Uztailak 16 eta 17
Gazteek antolatutako kontzertuak
Los Llanos lorategiak

Uztailak 23
Mursego kontzertua & proiekzioa
Los Llanos lorategiak

Uztailak 31
Sara Zozaya kontzertuan
Deierri

Abuztuak 7
"Gurerara" Oskar Estangarekin
20:00etan Villatuertako eliza atzean

Abuztuak 13 eta 14
Nafarroa Oinez ekitaldia
eta musika
Los Llanos Kulturagunea
eta lorategiak.

Abuztuak 21
Iparfolk taldearen kontzertua
Lezaun

Abuztuak 28
"Koplariak": dantza, folk musika, kopla ikuskizuna.
Los Llanos lorategiak

Garean
Euskaldunon Elkartea

Udan Blai 2.0

Blai, bustitzea, jolastea, dibertitzea, murgiltzea... eta *Bai*, baikortasuna, erabakia. *Udan Blai, Udan Bai*, eta beraz **Udan ere Bai euskaraz Blai**.

*Udan Blai*k hainbat premiari erantzuten die: Tokian tokiko eta unean uneko kultur programetan euskaraz diren ekitaldi horiek nabarmentzea, oharkabean pasa ez daitezen. Eskualdearen koordinazio ahalegina, euskarazko eskaintzari dagokionez agenda koherente bat izateko eta, ahal dela, euskarazko antzeko ekitaldiak elkarri ez zapaltzeko. Eta, azkenik, familien ondoan egotea euskara ikasteko prozesuan, horretarako kultur ekitaldien berri emanez aisialdia, hazkuntza, gozamena eta hizkuntzaren praktika gauzatzeko.

Bestalde, azpimarratu behar da eskuartean dugun udako proposamen eder hau bilduma bat dela. Hau da, ekitaldi bakoitzak berezko antolatzaile bat du, herri ekimeneko eragileetatik hasi (Garean, Larraiza, bertsozaleak, Nafarroa Oinez, Irriherri, Gazte asanblada...) toki entitateetaraino (udalak, Irantzu mankomunitatea...), ahaztu gabe hauetako batzuk Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen dituela. Hortaz, ekitaldiaren nondik norakoak, azken berriak, xehetasunak, eta abar antolatzaileek emanen dituzte, eta ahal dela euskarazko ekitaldien online agendak eguneratuta mantenduko dira, besteak beste Kotarro.eus-ena.

Informazio osatua eta eguneratua, honako agenda digitaletan

Hemen bildu dugun Udan Blai informazioa behin-behinekoa da, betiere kontuan izan azken berriak eta informaziorik osoena ekaldi bakoitzaren antolatzaileak izanen duela. Hala ere, honako agenda digitalak azken nobedadeekin eguneratua mantentzen saiatuko gara:

Nafarroako euskara zerbitzuen eranafarroa.eus atariaren agendan familientzako Nafarroako euskarazko jardueren berri izanen duzue, euskaraz eta gaztelaniaz.

Garean elkartearen kotarro.eus webguneko agendan eskualdeko jarduera guztien berri emanen dugu, euskaraz.

Nafarroako euskara zerbitzuen elaide.eus webguneko agendan Nafarroan egiten diren helduentzako jardueren berri emate da, euskaraz.

Udan Blai Tour familientzat:

Eskoletara bidali den Udan Blai programan sorpresatxo bat izanen da: inprimatzeko moduko ibilbidea bat. Ekitaldi ugari ospatuko dira familientzat apartak izan daitezkeenak, eta mapa moduko hori inprimatuta eta ekitaldietara ekarrita, sarreran aukera izanen da Udan Blai zigilua koadrotxo batean «kuñatzeko» eta txikiek bilduma egin dezaten.

Ikasturte hasierarekin batera, nahi duenak Gure Zirkuko sarreran egongo den kutxan utzi ahalko du eta jasotzen diren guztien artean opari-zozketa eginen dugu. Ea nork euskarazko ikuskizun gehiagorekin gozatu!

LIZAR
Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINTZA
Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com

Helbide berria!
ekolore lizarra .com
Mundua deskubritzeko jostailu eta jolasak
Kale Nagusia, 23 · Estella-Lizarra · 948 985 306

Familientzat bereziki egokiak

Honako ekitaldi hauek familientzat bereziki interesgarriak izan daitezkeen kultur ekitaldiak dira: antzezlanak, musika, ipuinak, magia, ihes-gela, zinema...

Ekainaren 25ean
«San Juan suak» ipuin-musikatuak. Lezaungo udaletxearen ondoan 21:30ean.

Ekainaren 26an
Kantuz Txiki Lizarrako Los Llanosen 12:00etan.

Ekainaren 27an
«Meri, Mari eta Lari» familia-antzerkia. Eraul (Deierri) 19:00etan.

Uztailaren 3an
«Azken eguzkilorea» antzezlana. Oteitzako Idoia parkean 19:00etan.

Uztailaren 8an
Potx eta Lotx pailazoak «Etxean». Lizarrako Los Llanos lorategian 19:30ean.

Uztailaren 17an
Konkiseko probak Mugiturekin: Arkua, yumar, oreka-altueran...

Uztailaren 17an
«Izeba Tekla» piano-jolasa Xabier Lizasorekin, Muezko plazan (Gesalatz), 19:30ean.

Uztailaren 20an
«Diverti-dantza» Deabru beltzekin Lizarrako Los Llanos lorategian (elebiz).

Uztailaren 28an
«Tor Magoa» Lizarrako Los Llanos lorategian 19:30ean.

Uztailaren 31n
«Piraten altxorra» scape room edo ihes gela Villatuertako kiroldegian (+8 urte).

Abuztuaren 4tik 8ra
euskararen astea Villatuertan, besteak beste «Magikus» ipuinak, magia eta umorea abuztuaren 6an, 20:00etan elizaren atzean

Abuztuaren 13 eta 14an
Nafarroa Oinez ekitaldia, musika eta ikuskizuna Los Llanos Kulturagunea eta lorategian.

Abuztuaren 20an
«Txomin deskontzertuan» kontzertu didaktikoa Abartzuzan, arratsaldez.

Abuztuaren 27an
«Tess eta ni» filma aire zabalean Lezaungo elizako frontoian ilunabarrean.

Abuztuaren 28an
«Koplariak» dantza, folk musika, kopla ikuskizuna. Korrontzi, Larraiza eta Oinkari Dantza Taldeak, Xabier Amuriza & Leturia. 20:00etan Lizarrako Los Llanos lorategietan.

Irailaren 3an
Karrikara! jolasak eta «Tess eta ni» filma Jaitzen, arratsalde eta ilunabarrean.

Irailaren 5ean
familia-ikuskizuna Deierrin arratsaldean

Irailaren bigarren hamabostaldian
Mugiturekin ginkana eta abentura jolasak Oteitzan.

Irailaren bigarren hamabostaldiko asteburuetan
Gure Zirkua Lizarran

Gazte eta helduentzat

Gazte eta helduen udan musikak izanen du protagonismoa, ahaztu gabe dantza, Gaztetxearen 25. urteurrena, Nafarroa Oinez, bertsoak...

Uztailaren 16 eta 17an
Gaztetxearen historiaren dokumentala, kontzertuak eta familia-ekitaldia. Lizarrako Los Llanos Kulturagunea eta lorategiak.



Uztailaren 23an
Mursegoren kontzertua eta proiekzioa Lizarrako Los Llanos lorategietan ilunabarrean.

Maite Arroitajauregi eibartar indartsua bueltan da Lizarrara, Akelarreren soinu bandarengatik Goya saria irabazi berritan.

Uztailaren 31n
Sara Zozayaren kontzertua Deierrin, arratsaldean. Donostiarrak bere unibertso ilun eta zintzoa ekarriko dizkigu folk pop, lo-fi eta beat elektroniko soinuekin.

Abuztuaren 7an
Karlismoaren Museoan bisita gidatua 17:30ean.

Abuztuaren 7an
«Gurerara» musika eta sormena Oskar Estangarekin Villatuertako elizaren atzean 20:00etan

Abuztuaren 13 eta 14an
Nafarroa Oinez ekitaldia, musika eta ikuskizuna. Los Llanos Kulturagunea eta lorategiak.

Abuztuaren 21ean
Iparfolk taldearen kontzertua Lezaunen arratsalde-ilunabarrean.

Abuztuaren 28an
«Koplariak» ikuskizuna: dantza, folk musika, kopla ikuskizuna. Korrontzi, Larraiza eta Oinkari Dantza Taldeak, Xabier Amuriza & Leturia. 20:00etan Lizarrako Los Llanos lorategietan.

Abuztuaren 29an
Bertso-saioa, Lizarrako Los Llanos lorategietan arratsaldean.

Irailaren bigarren hamabostaldiko asteburuetan
Gure Zirkua Lizarran.

Koplariak eta Korrontzi Dantzan

Abuztuaren 28an aparteko ikuskizuna izanen dugu Lizarran: Koplariak. Bertan Korrontzi taldearen eta Tapiaren musika Xabier Amurizaren kopla biluziekin uztartuko dira, eta hauek Larraiza eta Oinkariren dantzekin jantziko. Arte-diziplina ugari Los Llanoseko lorategien taula gainean.

Ekitaldi honen aitzakiarekin, aukera izan dugu Larraiza Dantzari Taldearekin eta Agus Barandiaranekin hitz egiteko. Hala, Agus, Korrontziren sortzaile eta trikilaria da eta azaldu digu Madrilgo Nube Negra disketxearekin atera zutela lehen diskoa eta haren bitartez sartu zirela nazioarteko folk zirkuituan: «*Italian, Frantzian... nahiko ezagunak ginen, baina paradoxikoa bada ere, Euskal Herrian ez. Ederra izan zen Malasian, Brasilen... eta WOMAD bezalako mundu mailako jaialdietan geure herria ordezkatzea*». *Eta jarraitu du «askorentzat, gure kulturarekin zuten lehen kontaktua zen, gure musika, hizkuntza eta sonoridadearekin.» Izan ere, «lorpen txiki bat zen guretzat gure izatearen berri ematea, publikoak Euskal Herria ezagutzea, bitartekaririk gabe. Nolabait, esan daiteke enbaxadoreak izan garela*».

KOPLARIAK ikuskizunean diziplina eta artista ugari batzen dira. Hala, Korrontzirekin batera Leturia ere aritzen da, «*harekin erdi bromatan hasi baginen ere, gaur egun esan daiteke taldekide egin zaigula. Bestalde, Korrontzin gabezia bat genuen, geure musikaren %90a instrumentala zen, eta hitza? Hala, Amurizak hitzak jarri zizkion gure doinuari, koplaka*». Baina, arlo musikalaz harago, dantza ere bada ikuskizunaren parte garrantzitsua eta horretan Oinkarirekin 10-12 urteko elkarlan finkoa egin dute, «*haiek koreografia berriak egiten dituzte gure doinuekin*».

Bestalde, Oinkariz gain, Euskal Herriko beste 50 bat dantza talderekin kolaboratu dute eta, hala, oraingoan Larraizaren txanda izan da: «*2015ean hasi ginen herriko dantza taldeak gonbidatzen gure doinuak dantzatzera, taula gainean. Hasiera batean, uste genuen oso mundu itxia zela herriko dantzena, baina guztiz kontrara izan da. Are, Madril eta Bartzelonako taldeekin ere aritu gara*». Halere, ez zuten lan honen tamaina

ongi neurtu, izan ere «*herri bakoitzeko emanaldia baino lehen, taldearekin bozpazazpi egun hitzartzen ditugu emanaldia prestatzeko.*»

Beraz, emanaldi bakoitza bakarra bilakatzen da. Baina, tamainako lanak merezi al dio Korrontziri? «*Lehenengo entseguan, ikustea beraien nerbioak, kirioak dantzan dituztela iristen zaizkigu: 'zer eskatuko digute egiteko? maila emanen dugu? zer ikasiko dugu?'... baina entseguak egin ahala deskubritzen dute maila dutela, urduritasuna ikasteko irrika bilakatzen da eta nerbioak pasatzen dira. Eta, emanaldiaren egunean, sentimendu asko batzen dira taula gainean, herrikideen aurrean*». Hala, «*herriko dantza taldeei geure musika eskaintzen diegu eta haientzako erronka den proiektu bat: profesionalekin batera aritzea. Baina guk ere asko jasotzen dugu, haien gogoa, poza eta emozioa, horrek 'txutea' ematen digu.*»

Bestalde, **LARRAIZA DANTZARI TALDEA-k** rol ugari hartuko ditu emanaldi honetan: antolatzaile, sustatzaile eta ikuskizunaren parte izanen da. Eta haiei ere galdetu nahi izan diegu honen inguruan:

1. Zein da Larraiza Dantzari Taldearen filosofia? Ba al du bereizgarriren bat?

Larraizaren filosofia gure kultura eta dantzak mantentzea da eta horretarako jendeari eskura dauzkagun aukera guztietan dantzatzeko aukera ematen diogu, beti dohainik. Udan Larrain dantza ikastaroa egiten dugu, umeei eskolak ematen dizkiegu eta nahi duen orori ateak zabaltzen dizkiogu. Une politak pasatu dantzarekin gozatzen dugun bitartean, denontzat tokia izanik, hori da azken batean Larraizaren filosofia.

Bereizgarritzat talde herrikoia garela esango nuke. Herrian ospatzen diren eta deitzen gaituzten proiektu guztietan parte hartzen saiatzen gara, euskara eta euskal kultura sustatzen lagunduz.

2. Euskal dantzak eta euskara, izena komuna dutela esan daiteke, eta izana? Eskutik al doaz?

Larraizan zalantzarik gabe. Taldeak beti izan du lotura estua euskara eta euskal kulturarekin eta azkeneko urteetan batez ere euskarari lehentasuna eman diogu gure ekitaldietan eta talde barruko egunerokoan.

3. Dantza taldean ardura gehien hartzen duzuenok boluntarioak zarete eta ordu ugari sartzen dituzue, argi dago merezi dizuela, zergatik?

Emaitzak ikustean sentitzen duzunarengatik. Batzuek ardura handiagoa hartzen dugu, baina azkenean denon arteko elkarlan bat da. Denok jartzen dugu gure zatitxoa eta horrela errazagoa da. Batzuek



eskolak ematen dituzte, beste batzuk materialaz arduratzen dira, beste batzuk jantziez... eta denok dantzak bikain ateratzeaz! Lan guzti horrek merezi du desiratutako emaitzak lortzean: Ekitaldi bat aurrera ateratzen denean, umeek dantzatzen dutenean ongi pasatzen dutela ikusten duzunean, oholtzaren gainean gozatzen dugunean...

4. Nola sortu zen harremana Korrontzirekin?

Iazko konfinamendua bukatzean bideo bat egin genuen hainbat tokitan, jendea eta geure burua animatzeko eta dantzatzeko gogorik ez genuela galdu erakusteko. Bideo horretan Korrontziren abesti bat dantzatzen genuen, sare sozialetara igo genuen eta uste genuena baino askoz arrakasta handiagoa izan zuen. Hala, haiengana iritsi zen eta horri esker elkarlan hau proposatu ziguten; aukerak aztertu ondoren, aurrera egitea erabaki genuen.

5. Larraiza ikuskizunaren parte da, zein da zuen papera?

Larraizak sei bat dantza egingo ditu emanaldian zehar, Korrontzirekin batera. Egun horretarako entsegu kopuru bat adostu dugu beraiekin batera eta gure ohiko entseguei beste batzuk erantsi dizkiegu, asteburuak barne. Hitz gutxitan, ahalik eta ordu gehien sartuko ditugu.

Gurerara, gure mundua eta bizitza gure erara aldatzea

Oskar Estanga (Gaintza, 1978) artistak «Gurerara» inprobisazio emankizun berritzailea du esku artean. Bi zentzutan inprobisatzen du: hitzez eta melodiaz. Estilo musikal desberdinen gainean inprobisatzen du, beti ere, oinarri urbanoari bati lotuta. Bertsolaritzako teknikak, kaletik jaso duen kultura urbanoarekin nahastu, eta entzuleengandik jasotzen dituen gaiekin sortzen ditu abestiak.

Nondik sortu zen bertsolaritza eta musika urbanoa uztartzeko ideia?

12 urteetatik aritu naiz bertsolaritzan (orain 42 ditut) eta musikan 16 nituenetik. Beti gustatu izan zait musikan eta musikarekin inprobisatzea. Bertso musikatuak egiten ibili nintzen urte askoz, jada bestelako kontutan nenbilen, baina konfinamentuak eta Euskadi Irratian kolaborazio bat egiteko aukerak sormenerako denbora asko utzi zidan eta aurretik jolasa bat zena plazarako proiektu bihurtu nuen.

Inprobisazioak ematen al dizu aukera momentuan barruan duzuna ateratzeko?

Momentuan daukaguna gure bizitza guztian dakarguna da. Momentuan emozio bat edo beste gehiago izango ditugu, baina orokorrean dakarguna ateratzen da. Askotan oso azkarra izaten da inprobisatzeko denbora, ez du aukera ematen ideiak nahi bezala lotzeko, baina duen edertasuna hori da, «tranpa» gutxi egiten uzten duela, beraz, dagoena ateratzen da nolabait.

Zure emankizunak, ikusleari zein ekarpen egin diezaiokeela uste duzu, bertsolaritzak ematen ez diona?

Bertsolaritzak molde bereziak ditu inprobisatzeko, zortziko handia, txikia... doinu zehatzak eta bertsoa bukaeratik hasita. Bertsolaritza ezagutzen ez duenarentzat atzetik dagoen lana ikustea zaila izaten dela uste dut batzuetan. Aldiz, kantuak denok entzuten ditugu, estribilloak, koplak... inprobisazio ariketa oso garbi ikusi dezake edonork kanta baten gainean. Gainera, emankizunean gauza batzuk entzuleen bistan egiten saiaten naiz, estribilloa sortu, ideiak aurreratu.... Bertsolaritzako teknikan oinarritutako inprobisazio gaitasuna zabaltzen duela uste dut emanaldiak.

Eta musika urbanoak ematen ez diona?

Momentuan nahi dugun gaiei buruz kantatzeko aukera, musika urbanoko betiko rolak ere zabalduz, estiloen arteko uztarketa eginez... ikusten da estiloak baino, asmoak baldintzatzen duela kantu bat nola iritsi ahal zaigun.

Nola eragin du pandemiak zure jardun artistikoan?

Mugimendu libreko ekintzatan nenbilen azken aldian, hori izugarri moztu zen konfinamendu garaitik hasita, oraindik ere ez gaude jardun normalean. Emanaldi eta klase gehienak (denak ez esatearren) moztu ziren. Sormenerako eta ikasketetarako erabili dut tarte hau. Kultur munduko pertsonak ze baldintza exkaxetean gauden sormenerako erakusten du berriz egoera honek, ez badugu emanaldirik ez dugu sarrerarik eta... hala ere, pozik biziraun eta moldatu ahal izateagati.

Nola ikusten duzu euskal kulturaren egoera? Mota honetako berrikuntzak behar dituela uste duzu?

Berrikuntza ez da aukera bat, berezko prozesua baizik. Bertsolaritza ere berritzen ari da erabat, musika... Euskal Herria globalizazio prozesuaren barne barnean gaudelarik, «Euskal» zer den jakitea ere ez da gutxi... Sustraietan arakatuz baina batez ere nolako herria nahi dugun hausnartuz eta gauzatuz ari dela uste dut, munduari irekia baina etxerako. Urte emankorrak datozela uste dut, gero eta sortzaile gehiago ari direlako gauzak egiten eta plazetara ateratzeko prest. Ea ba!

Bideo batean azaltzen duzu «Gurerara» gure mundua eta gure bizitza gure erara eraikitzea dela. Zer esan nahi duzu honekin?

Handik eta hemendik etengabe datozkigu bizi ereduak, nola bizi behar dugun, zer den zoriona (dela auto bat, etxe bat, edertasun irudi bat, diskurtso bat...). Horiek denak ea guretzako egokiak diren jakin behar genuke, hausnartu, bizi eta balio ez badigute, hobetu eta gure ekarpena egin. Bizitza eta kultura gure erara eraldatu, munduari gure ekarpena egiteko. Ez delako hainbeste zer, baizik zergatik eta nola.

ASTARRIAGA
GRAFICAS
Pl. Zugarraondoa, 6 • ABARZUZA • 948 520 138

ANETSA
948551998
FRAY DIEGO 41
LIZARRA
Bokatak, hamaiketakoak eta afari goxoak

Meteoritoa Lizarraldean?

Maiatzaren hasieran Txinak jaurtitako espaziontzi baten kontrola galdu zuen. Espaziontzia berriz Lurrera zetorren eta ez zekiten non eroriko zen. 50 metroko metalezko ontzia izugarrizko abiaduran erortzen, ausazko norabidean. Baina, ba ote dugu beldurtzeko motiborik?

Egia esan, ez asko. Lurraren azalera kontutan hartuta, ontzia Lizarraldean erortzeko probabilitatea %0.0004-koa da. Kontutan izan, gabonetako loterian sari nagusia lortzeko probabilitatea %0.001-ekoa dela. Hala ere, gure eskualdeko muga igarotzen badugu, ontzia gizakia bizi den lur eremuen baten erortzeko probabilitatea %7-koa da. Eta honek probabilitate txikia badauka ere, ez da hain lasai egotekoa.

Dena den, eskerrak hainbat arriskutatik babesten gaituen atmosfera dugula Lurraren inguruan. Ez soilik unibertsotik datozen izpi kosmikoetatik babesten gaituztelako, geuk sortzen ditugun arriskuetaik ere babesten gaituelako baizik. Satelite-hondar asko erortzen dira Lurrera, baina gure atmosferak desintegratu egiten ditu Lurraren gainazala kolpatzerako. Hala ere, tarteka espaziontziak oso handiak direnean, zatiren batek Lurra jo dezake eta hori da Txinak jaurtitako espaziontziarekin gertatu zena. Azkenean bere zati txiki batzuek jo zuten gainazala, Ozeano Indikoan, Maldiva uharteetatik gertu.

Lizarraldean oraingoz lasai egon gaitezke, izan ere hondakin horiek gure eremua jotzeko probabilitatea izugarri txikia da. Dena den, espazio-lehiaren testuinguruan gero eta satelite eta espaziontzi gehiago bidaltzen dira. Satelite horiek zaharkituta geratzen direnean bertan geratzen dira Lurraren inguruan biraka. Honen ondorioz, zabor espaziala deiturikoa arazo larria ari da bilakatzen. Kontutan izanda Sobietar Batasunak orbitan jarri zuen lehenengo satelitea, Sputnik-1, 1957an bidali zela, gizakiak 64 urte daramatza Lurraren inguruan sateliteak jartzen.

NASA-ren arabera zabor espaziala den, hau da, erabilerarik ez duen 18.000 satelite zati baino gehiago dago. Hainbat proiektu daude martxan zabor espazial hori «zabortegi-orbita» batera eramateko. Sateliteak Lurrarekiko distantzia desberdinetan dabiltza birak ematen. Dena den, altuera berezi bat dago, zeinetan orbita horien periodoa Lurraren biraketa periodoaren berdina den: 24 ordukoa. Altitude honetan dauden sateliteek abantaila handi bat daukate, Lurraren abiadura berdinean biratzen dutenez, Lurreko puntu berdinaren gainean egoten dira beti. Hau da, sateliteetako asko Lizarraren gainean izaten ditugu beti, etengabe, mugitzen ez direlako irudipena izango genuke ikusiko bagenitu. Orbita berezi honetan dago zabor espazial gehien eta helburua horiek beste orbita batera desplazatzea da.

Gaur egun oinarrizkoak iruditzen zaizkigun Interneta edo GPS-a bezalako tresnak sateliteei zor dizkiegu. Eta Einsteinek defendatzen duen denboraren erlatibotasuna sinesten ez duen horrek hor dauka froga bat. Bi arrazoi daude denboran eragina dutenak: abiadura eta grabitatea. Gorputz bat zenbat eta azkarrago joan, denbora motelago pasako da eta grabitatea zenbat eta handiagoa izan, denbora ere motelago pasako da. Orbitan dauden sateliteek izugarrizko abiaduran higitzen dira gurekiko, 14.000km/h inguru. Honen eraginez, egunero 7 mikrosegundu (segundu bat milioi bat zatitan)

aurreratu behar dira sateliteko erlojuak, gurearekin batera joateko. Gainera, lurretik urrun daudenez, grabitatearen eragina txikiagoa da, eta egunero 45 mikrosegundu atzeratu behar dira. Aldea oso txikia da, 100 urtean segundu bateko desberdintasuna dago, baina GPS sistemak funtzionatzeko beharrezkoa da erlojuak zehaztasun handiz sinkronizatzea.

Beraz, Lizarratik pasatzen diren erromesek gaur egungo mugikorreko aplikazioen bitartez ez dute horrenbestetan galdetu beharrik Santiagora nondik joan. GPS-en funtzionamendu eta Einsteinen erlatibitatearen teoriei esker, batek baino gehiagok aurkituko zuen bidea errazago. Gainera gure eskualdean satelite bat erortzeko probabilitatea zein den ikusi dugu eta lasai igaro daitezke hemendik. Dena den, gizakiak espazioa ere konkistatu du eta Lurrean jasangarritasuna arriskuan dagoen bezala, ematen du espazioa ere ez dela libratuko.

LIBRERIA-PAPELERIA
INO
LIBURUDENDA-PAPERDENDA
Zapateria Kalea, 3
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA

PASTELERIA GOXOTEGIA
ESTELLA LIZARRA
NAPAL MONTOYA
Angela
Plaza Fueros 2 Tel 948 55 07 95

Foto-inkesta

Pandemia gora pandemia behera, uda ate joka daukagu. Udarekin batera, batzuentzako oporrak, bidaiak, urtegian bustialdiak... Eta nola ez, herrietako jaiak. Zer petsatuko ote dute gazteek testuinguru honetan jaien inguruan?

1. Jaiak ospatzearen aldekoa al zara?

2. Jaietako zein ekintza edo jarduera botako zenuke faltan?

3. Jaiak ospatzen ez badira, nola beteko duzu hutsune hori?

Bingen Anduaga:

1. Ez. Gauzak nola dauden ikusita, uste dut ez dela komeni. Osasun sistemak ezin du normalitatera bueltatu, birusaren kutsadura kontrolpean ez dagoelako. Hala ere, pentsatzen dut alternatiba ugari egin daitezkeela jai alternatiboak batzuk egiteko.

2. Txosnetako jai giroa eta txosnak berak.

3. Mendi eta arroiletan barna ibiltzea asko gustatzen zait, pentsatzeko eta disfrutatzeko, asko laguntzen dit. Bizi dugun momentua, pentsatzeko eta hausnartzeko garaia izan da. Nire ustez, parranda botatzea, egunerokotasunean sortzen diren arazoetatik aldentzeko tresna bat izan daiteke.

Amaia Arbizu

1. Gustatuko litzaidake, baina ez dut uste bideragarria izango denik. Egoerak asko hobetu beharko luke ospatu ahal izateko... uste dut hurrengo urtera arte itxaron beharko dugula.

2. Ba orokorrean dena, baina batez ere ostiralean eta asteartean egiten dugun koadrila bazkaria eta geroko juerga. Niretzat egun onenak dira, kriston giroa egoten da egun osoan zehar.

3. Egoeraren arabera, baina espero dut behintzat lagunekin bazkariren bat egin ahal izatea eta juerga egin ordez ibaira edo mendira joatea. Kanpoko ekintzak beti alternatiba onak dira eta bereziki garai honetan.

Ainhoa Etxalar

1. Bai noski. Arropa txuria, zapia eta gerrikoa gorria janztea nork ez du gustoko?

Jaietan ikusten den giroa oso polita da, edozein adinetako jendea ikusten da kalean.

2. Ekintza asko botako nituzke faltan, baina gehien bat bazkariak. Lagunekin elkartzea eta bazkaria prestatzen duzun bitartean, pote bat eskuan duzula, aurreko gauean egin duzun guztia kontatzea. Momentutxo horiek oso dibertigarriak dira.

3. Jaiak ospatzen ez badira bazkari edo afari pare bat egingo nituzke lagunekin. Trikitixa eta panderoarekin girotua badago askoz hobe. Bukatzeko, kalejira bat egingo genuke Lizarrako kale guztietan zehar.

Iñaki Agirre

1. Egungo egoera ikusita hobeto da datorren urtera arte itxarotea, nahiz eta jaiak ospatu nahiko nituzken. Hurrengo urtera arte itxaron beharko dugu eta gogo handiagoz gozatuko ditugu.

2. Gehien faltan botatzen dudana txosnak dira. Oso giro ona eta sanoa egoten da, gune alternatibo horretan nire ekarpena egitea ere gustatzen zait. Bereziki ostirala botako dut faltan: bazkaria, kalejira... eta kontzertuak, noski.

3. Ba ez dakit, juerga egin. Eta utziko baligute, lagunekin bazkaria prestatu eta gero mozkortu jaiak ospatzeko. Koadrilan ez dugu aitzakia handirik behar horrelako eguna antolatu eta elkarrekin ondo pasatzeko.

denborapasak

Gurutzegrama



Ezker eskubi
2- Filosofiaren alaba.
5- Lumiere anaien semea.
6- Txirritaren jarduna.
7- ... zu zara.
8- Musen artea.

Goitik behera
1- Tragedia edota komedia.
3- Helburu estetikodun ekintza.

Euskal glifoa

Bertso zutabea

Egilea: **Ekhiotz Prieto Otxoa**

Urte bete bat pasatu dela
itxialdian arotik
kontrolak baina ez du alde egin
kolpatzen dabil gogotik
aisialdiak, elkartrukeak
tranpa_asko eskatzen dizkit
ezin delako lasai ibili
jokatu gabe marroirik.

Bilera oro, zein ordu txiki
dena dute debekatu
muxu ematea ere omen da
gaur egunean pekatu
zahar zein gazte, denok gabiltza
moduak egin, asmatu
bizi nahi hortan, egunez egun
irudimena askatu.

Osasuna eta hurkoen zaintza
zentruan jarri askotan
bizia bera borroka bat da
hori dugu maiz ahotan
egia izanik tokatzen dela
hori_izatea gogotan
bizigarria den bizia da
gaur dagoena kolokan.

Gure Zirkua iraileko asteburuetan

Ez dago modu hoberik udako kulturaldi hau amaitzeko Euskal Herrian bolo-bolo dabilen ikuskizunarekin baino. Lehen hiru denboraldietan 100.000 ikusle baino gehiago erakarri eta gero, laugarren birari ekin diote jada eta Lizarra izanen dute geldialdietako bat.

Zirku ibiltariak sekulako arrakasta izan du hasiera-hasieratik, eta familiak zein helduak erakarri ditu trapezisten eta malabareen fantasiara. Txina zaharrean hasi zen tradizioak Greziara jauzi egin zuen eta, handik, Erromara. Erromatarrek izendatu zuten «zirku», eta orain, guretartu egin dugu ikuskizuna, eta bidaia magikoa bat egitera gonbidatu gaituzte.

Sarrerak www.gurezirkua.eus webgunean erosi ahalko dira eta Lizarraldean irailaren bigarren hamabostaldiko asteburuetan izanen da. Saioak arratsaldez izanen dira: ostiralean (bat), larunbatean (bi) eta igandean (bi).

Ekitaldiaren antolatzaile Nafarroa Oinez eta Agerraldia ditugu. Aurtengo Oinez zinez ezohikoa izanen da, agendan sakabanatutako ekitaldiekin: Artea Oinez, abuztuko jaialdia, esku-pilota txapelketa... baina betiko gogo eta inplikazioarekin. Bestalde, ekitaldi honen antolaketarako ezinbesteko aktore berri bat etorri da: Agerraldia.

Agerraldia Errigora egitasmoaren laugarren hanka da. Errigoratik biltzen den dirua Erriberan euskara sustatzen ari diren hiru eragile laguntzen dira, eremu horretan bertan proiektuak gara ditzaten: Ikastolak, Sortzen eta AEK. Bada, Agerraldia da proiektu honen laugarren hanka. Bere helburua hegoaldeko herritar euskaltzaileak ahalduntzea, saretzea, eta sendotzea da. Helburu horrekin, elkarlanean ekitaldi ugari antolatzen ari dira Nafarroa erdialde eta hegoaldean. Informazio gehiago webgunean http://agerraldia.errigora.eus/

kotarro
54. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak

Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700

paper birziklatua

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Ayuntamiento Estella-Lizarra Udala

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.